



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Lizitazio iragarkia

t. +34 94 657 40 00
info@azti.es | www.azti.es

Pasaia, 2023ko apirilaren 27a

1. XEDEA

AZTI Fundazioak iragartzen du lehiaketa publiko bidezko lizitazio prozedura bat ireki duela “gure jarduerari loturiko material, tresna eta gainontzeko efektuetarako hornidura eskuratzeko”.

2. ZERBITZUAREN IRAUPENA

Zerbitzuaren iraupena **hiru (3) urtekoa** izango da, kontratua sinatzen den egunetik aurrera. Kontratua urtero luzatu ahal izango da, automatikoki, baldin eta edozein alderdik kontrako erabakirik hartzen ez badu, besteari idatziz, hasierako epea edo luzapenetako edozein epe amaitu baino hilabete lehenago. Kontratuak, luzapenak barne, ez du bost (5) urte baino gehiago iraungo.

3. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Lizitazio honetarako onartuko den gehieneko eskaintza ekonomikoa iragarki honetako zerrendan agertzen diren erreferentziei dagozkien unitateko zenbatekoekin adieraziko da, zergak barne hartu gabe. Erreferentzi bakoitzeko onartuko den prezio maximoa azaltzen da taulan (ikusi 10. puntua *Eskaintza Ekonomikoaren Aurkezpena*).

Fakturazioa zerbitzua amaitzean egingo da, eta jaulki eta hurrengo 60 egunetan ordainduko da faktura.

4. PROPOSAMENAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Jasotako proposamenak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Eskaintza ekonomikoa	%60
Doitasun teknikoa	%20





MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Hobekuntzak	%5
Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Politikak	%5

5. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitatuzaileek Alaitz Lizasori aurkeztu ahal izango dizkiote proposamenak alizaso@azti.es helbide elektronikoa eta AZTIren edozein zentrotan, iragarki hau AZTI Fundazioaren webgunean argitaratzen denetik **2023eko Maiatzaren 11ko 12:00ak arte**.

Lizitatuzaileek helbide honetara jo ahal izango dute informazio tekniko gehigarria jasotzeko:
AZTI

Norentzat: Ekaitz Erauskin

Tel. 34 667 174 454

Mail: eeauskin@azti.es

6. ESLEIPENA

Eskaintzak aurkezteko adierazitako egunean jaso ondoren, 15 laneguneko epean, AZTI Fundazioaren webgunean argitaratuko da lizitazioaren emaitza.

7. KONTRATAZIORAKO BALDINTZAK

- Hautatutako erakundea, AZTIrekiko zerbitzuak dirauen bitartean, lan, Gizarte Segurantzaren eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, eta, dagokionean, enpresa jarduerak koordinatu beharko ditu, 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, ezarritako prozedura eta espezifikazioei jarraituz (hemen eskuratu daitezke <http://www.azti.es/es/coordinacion-de-actividades-empresariales/>)
- Hautatutako erakundeak, beste edozein agiri alde batera utzita, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du kontratua formalizatu aurretik.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

- Hautatutako erakundeak kontratua formalizatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du gehienez 20 eguneko epean, esleipena egiten denetik zenbatzen hasita. Edozein gai gehigarri kontsultatu ahal izango da www.azti.es helbidean argitaratutako Kontratazioaren barne Araudian.
- Baldintza teknikoez eta administratiboez gain, AZTIk positibo baloratuko ditu Kalitate, Segurtasun eta Osasun, Ingurumen, Mugikortasun Jasangarri eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politikei eusten dietela frogatzen duten hornitzaileei.
Hornitzaileak politika horiek egiaztatzeko aukera ematen duten dokumentuak edo erregistroak sartuko ditu bere proposamenean (kalitate ziurtagiriak, ingurumenekoak, gizarte erantzukizuneko gaitako jardueri buruzko dokumentazioa, etab.).

8. DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRA

Arduraduna: Izena: AZTI FUNDAZIOA - IFK: G48939508 Posta helbidea: TXATXARRAMENDI UGARTEA Z.G. SUKARRIETA (BIZKAIA) Telefonoa: 946574000 Helbide elektronikoa: lopd@azti.es.

"AZTI FUNDAZIOAn ematen diguzun informazioa tratatzen dugu, zure eskaera egiteko, zerbitzuak fakturatzeko eta merkataritza harremanak mantentzeko. Zure datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa merkataritza harremanak izateko eta zerbitzuak emateko dugun interes legitimoa da, eta behar-beharrezkoak dira helburu horretarako. Emandako datuak gorde egingo dira merkataritza harremanak dirauen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan, eta, harremana amaitu ondoren, erantzukizunak sor daitezkeen neurrian. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharren bat dagoenean izan ezik, ezta zerbitzu tekniko eta informatikoen eta auditoretzaren hornitzaileei ere. Halaber, ez du inola ere zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik egingo. Eskubidea duzu AZTI FUNDAZIOAn zure datu pertsonalak tratatzen ari garen jakiteko; ondorioz, eskubidea duzu zure datu pertsonaletan sartzeko, datu okerrak zuzentzeko edo ezabatze eskatzeko, datuak jada beharrezkoak ez direnean, baita ere aurkaratzeko, mugatzeko eta lekualdatzeko eskubidea ere, datuen babesari buruz aplikatu beharreko araudian xedatutako terminoetan, goian adierazitako helbidera idatziz jakinaraziz. Halaber, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute kontrolerako agintaritza eskumendunaren aurrean.

9. BALDINTZA TEKNIKOAK

- AZTIk eskubidea du jasotako proposamenei buruzko argibideak edo informazio osagarria eskatzeko. Dena den, jasotako proposamenen ebaluazioetan berdinketa gertatuz gero, proposatutako hobekuntzek erabakiko dute azken erabakia.
- Eskainitako prezioa kontratua irauten duen bitartean mantenduko da, inolako arrazoiengatik aldatzeko aukerarik gabe.
- Hornidura, aurretik AZTIk eskatuta bezela egingo da.
- Eskaera bakoitzaren entrega AZTIk zehazten duen pertsonarekin egingo da eta hornitutako produktuen albaranarekin.
- Hautatutako entitateak, eskaera egiteko unean bezeroarekin hitzartutako entrega-baldintzak bete beharko ditu.
- Hautatutako entitateak biltegiatze-ahalmen nahikoa izan beharko du beharrezko izakinak mantentzeko eta behar diren produktuak behar bezala maiztasunez hornitzeko.
- AZTIk eskatutako erreferentzia ezberdina eskainiz gero, aukeratutako entitateak azalpen teknikoetan oinarrituko da.
- Esleipendunak ezin badu bete eskatutako hornidura AZTIk eskatzen dituen baldintzetan, AZTIk beste hornitzaile batekin zehazteko eskubidea izango du.
- Azaldutako zereginak behar bezala beteko direla ziurtatzeko eta horiek definitzeko eta burutzeko arintasun handiagoa ahalbidetzeko (batez ere larrialdi-egoeretan) AZTIko langileek beste zeregin batzuk betetzeari traba egin gabe, ahal den neurrian, hornitzaileak eskaintzan jakinarazi beharko du harremanetarako pertsona eta komunikatzeko kanala deskribatzea (gutxienez telefono mugikorra eta helbide elektronikoa).
- Positiboki baloratuko da heuren produktuek sortzen duten ontzi-hondakinen kopurua minimizatzeke ekimenen proposamena.

10. ESKAINTZA EKONOMIKOAREN AURKEZPENA

Lizitatzailleek honako taula honen arabera aurkeztu beharko dute eskaintza ekonomikoa:



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Deskribapena	Prezio maximoa	Lizitazioaren eskaintza
Boya Pisciboy 1400l 1116mm diámetro	876,20€	
Cuerda polysteel orca 24mm 200metros	266,38€	
Cuerda polysteel orca 4/c 18mm 200metros	130,40€	
Grillete inox lira de 22MM cod 32i022	31,37€	
Grillete lira c/tuerca y pasador 3/4 ref. 6GARLTP034BEZ	10,97€	
Grillete lira c/tuerca y pasador 5/8 ref. 6GARLTP058BEZ	7,58€	
15 MTRS. CADENA DIAMETRO 16 ESLABON LARGO-100	373,50€	
ROLLO CABO DE NYLON TRENZADO Ø 10mm x 100m IPC 2110	54,00€	
Cadena inoxidable DIN 5685 Duplex 4mm	8,55€	
Cadena inoxidable DIN 5685 Duplex 5mm	16,16€	
Cadena inoxidable DIN 5685 Duplex 8mm	22,06€	
100m Cable inoxidable AISI-316 7x19+0 4mm	100,80€	
Mosquetón inoxidable AISI-316 Kong 100mm;	10,73€	

AZTIk adierazitako markaren alternatiba bat eskainiz gero, argi eta garbi azaldu beharko dira azalpen eta gehitu zehaztapen tekniko guztiak.